AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1420

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 16koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, zeinen bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozesuan onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda.

2012ko otsailaren 15ean, 2012ko otsailaren 10eko Agindua argitaratu zen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Agindu horren bidez, deitu egin zen, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozedura.

Aipatutako deialdiaren 4. oinarriaren 1. atalak dioenez, Langileriaren Kudeaketako zuzendariak emango du ebazpena, onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzen dela adierazteko, eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horregatik guztiarengatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozeduran parte hartzeko onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda. Kanpoan utzitakoen kasuan, arrazoia adierazi beharko da.

2. artikulua.– Zerrenda horiek Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Internet-en helbideetan argitaratuko dira: http://www.irakasle.net eta http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, hautaketa-prozesuan eta espezialitate berriak hartzeko prozeduran onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrendaren aurka. Epea 10 laneguneko izango da, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 16a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.